

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure enpresaren merkatua segmentatua dago guk aukeratzen dugulako bezero potentziala zein den, mugatu egiten dugu. Eta bestalde, merkatua nitxo da ez baitago gizarte osoari zuzenduta: kotxea duten guztien artean kotxe elektrikoa dutenentzako da, beraiek soilik erabili / kontsumitzeko aukera baitute gure zerbitzua.


Merkatu-nitxoak antzeko ezaugarriak, gustuak, ohiturak eta abar dituzten kontsumitzaileen sektoreek edo taldeek osatzen dute. Merkatuko eskaintzak ez ditu horien eskaerak guztiz asetzen eta hor sortzen da negoziarako aukera: eskaera horiek aurkitu eta horiek modu egokian ustiatu behar dira. Baina, hori egin ahal izateko, kontuan eduki behar da nitxo horiek merkatuko hornitzaile nagusiek erantzuten ez dieten pertsona-taldeek osatzen dituzte.

Guk, premia edo ezaugarri berak dituzten pertsonen edo erabiltzaileen taldea identifikatu dugu eta gainera, segmentu zabala dela egiaztatu dugu, hari produktu edo zerbitzu bat eskaintzea errentagarria izan dadin: Gaur egun edukiko dugun kontsumitzaile kopurua txikia izango da, baina etorkizunera begira bezero kopurua handitu egingo dela aurreikusten da.

Azkenik, beste hornitzaile batzuek premia horri erantzuten ez diotela egiaztatu dugu, baita hori errentagarritasunik ezagatik izan ez dela ere.

Horretarako, "Google trends <https://trends.google.es/trends/?geo=ES>" herraminta erabili dugu. Termino edo hitz jakin batek Interneten izan dituen bilaketen joerak neurtzeko gai da. Besteak beste, Google-en egin diren bilaketek denbora igaro ahala gora edo behera egin duten jakitea ahalbidetuko dizu, eta etorkizuneko jokaera zein izango den iragartzen lagunduko dizu.

Guk "coche electrico" terminua bilatu dugu eta honako hau izan da azken bost urteetan izan duen bilakaera. Ikusi daiteke gutxinaka goraka doala eta 2018an batezere goraka nabarmena izan zuela:



Bestalde, azken urtean, Espainiako komunitate hauek izan dira termino hau gehien bilatu dutenak. Bertan, ikus dezakegu Euskal Herria lehenengo bosten artean dagoela. Hori guretzat interesgarria da, Euskal herrian kotxe elektrikoekiko interesa dagoela adierazten duelako.

1	Comunidad de Madrid	100	<div style="width: 100%;"></div>
2	Castilla y León	86	<div style="width: 86%;"></div>
3	Región de Murcia	84	<div style="width: 84%;"></div>
4	Castilla-La Mancha	81	<div style="width: 81%;"></div>
5	País Vasco	79	<div style="width: 79%;"></div>

< Mostrando 1-5 de 17 subregiones >